

UDAL-BATZARRA 03/08

UDAL-BATZARRAK, 2008ko MARTXOAREN 6ean EGINDAKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka

ZINEGOTZIAK:

Ainitze Etxaniz Iraola
Eider Garmendia Arrieta
Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga
Gregorio Zuaznabar Urkola
Fidel Azpiroz Arrillaga
Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko martxoaren 6ean iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohiko Bilkura egin asmoz Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Ayestaran eta Alazne Ruiz Luluaga zinegotziak ezin etorria adierazten dute eta idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

1.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 001 ZENBAKITIK 135 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“41 eta 42 dekretuen inguruan. Hemen ikusten duguna da 4 urte pasatzen baldin bada gauden datatik 2012 urtean sartuko ginateke. Kontratu hauek hurrengo legislatura hasieran ere indarrean egongo liriteke. Era horretako kontratuak, aholkularitzan arituko diren pertsonen kontratuak, hurrengo legealdiararte uztea ez zaigu egoki iruditzen. Bestalde, hitzarmeneko 8. puntuan inkompatibilitateko gaia azaltzen da bai hirigintzako aholkularitzarena eta baita ere juridikoa. Hirigintzako, gaur egun, kiroldesia eta babes ofizialeko etxeekin eta juridikoa Alaitz Zugastiren gaiarekin”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Inkonpatibilitateari buruzko txostena egina dago, errua nerea da pasa ez dudalako. Txosten horretan garbi agertzen da Oscar Padurak Alaitz Zgastiren aholkulari izateari utzi egin ziola eta bestean ere, kirol eta lan horiek egina izanagatik inolako inkonpatibilitatea ez dago. Bestetik 2 urteko luzapena egiten da eta bestea egin litekena da. Hipotesiarekin ari gara oraingoz eta bi urte pasatakoan ikusiko dugu zer egiten dugun orduan”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“46 eta 65 dekretuen inguruan. 65. ongi ikusten dugu eta poz hartzen dugu ekimen hau aurrera eramatea. Nolabait, udal kudeaketa, legealdi honetako plan hori sartu. Udal kudeaketa gauza simplea dirudi kanpotik ikusita baina barruan sartutakoan zailtasunak baditu eta helburuak bete behar dira. Herritarrak helburu horiek lortzea eskertuko dute; betetzen ez badira beraientzako kalte. Aldi berean eskertuko genuke kudeaketa plan hori osatzen zoazenean partehartzeko aukera emango bazenigu. Ez dut esan fiskalizatzeko begiekin begiratzeko bakarrik, baizik aportazioa jarriko genuke borondate onez”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Dekretuan agertzen den bezala LKSri eman zaio. Arduradunetako bat lehengo astean hemen izan zen; beraien asmoa da lana bi taldetan banatzea. Bat politikoena eta beste bat langileena. Langileen inguruan nola aurkeztu behar zen, zeinek parte hartu behar duen, pixka bat hitz egin genuen. Datorren astean, bere asmoa zen Aste Santua baino lehen bilera bat egitea eta bihar hitzegingo dut eta esango zaizue zein egunetan, zen talde, etab”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“46 dekretuaren inguruan. Ikusten dugu tamalez, udalaren barruan euskararen erabilerari buruzko konpromezua..., ez dut zurea dela bakarrik esaten, denena baizik. Baldintza pleguak erderaz daude; ez dakit, agian izan da presaren-presaz, badakigu nola funtzionatzen duten gauza hauek, eskatuko nuke hori zuzendu ahal izatea”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Presaka ibili ginen subentzio epeak betetzeko”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“105 dekretuaren inguruan. Onartzen da partida bat haurtzaindegiaren kanpoaldean alfombra moduko bat jartzeko. Gai honi inguan esan, aurreko legealdian hau bera tratatu zela. Ikusi zen kiroldegian sobratutako material batekin osatu zitekeela hor behar zen azalera. Beraiekin ikusi zen, froga ere egin genuen eta ontzat eman zuten. Edurkan jaso genuen eta orain berriz ikusten dut 4.500 euroko zenbatekoa onartu dela alfronbra horretarako. Bere garaien, Perikorekin hitz egin genuen horri buruz, eta uste dut transmititu nizula honen inguruan egin zen guztia eta sorpresa hartu dut orain, hemen, berriro hau. Again ez zen soluzio hoberena baina bai azalera hori estali zitekeen material horrekin. Kiroldegian, material hori dago, ez dago arazorik. Badakit hor haur txikiak direla baina materiala teknikoki eta neurri aldetik bazegoen”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ni gehiago harritzen naiz. Telefonoz zurekin hitz egindakoan, ontzat eman zenutela esan zenidanean, nik galdetu nizun berri ere, nork ontzat eman zuen. Hango arduradunek dio lurra babesteko balio duela”.

baina ez haurren kopetak babesteko. Zuk aipatzen duzun adostasun hori ez dut inon bilatu hemengo tekniko eta haurtzaindegikoekin hitz eginda. Esaten dizut, jarri dena da umeak babesteko eta ez lurra. Egia da, kiroldegiko pista babesten duela baina gauza bat da pista eta beste bat hor kanpoak egoten diren haurrak. Nik adin horretako umea izango banu aurrekoa ez nuke jarriko”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“132 dekretuaren inguruan. Kirol batzordetik pasa eta arduradunak ontzat emanik antolatuko da judoko kurtso bat. Zentzu honetan adierazi nahi nuke kiroldegirako batzorde bat osatu zela eta ez da inoz batzorde hori konbokatu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Kirol arduraren daraman zinegotzia ez dago hemen; lana dela eta, kanpoan dago. Kurtso hau hasi egin behar zen eta gastua ere Axiarren lanjarduna %6a eskax handitzen zaionez presarengatik neronek eman nuen agindua egiteko”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“132 dekretuaren inguruan. Kiroldegiko arduradunak hartu du erabaki bat eta beste, ordainketa denez zuri dagokizu baina pixka bat egin den lan hori behar bada batzorde batean ikustea ona izango litzateke”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Listoi bat jartzea da lehen zegoen tatamia eusteko.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Onartzen den aurrekontua 242 eurotako da. Lehengo legegaldian garrantzi handiagoa zuten gaiak komisiotan ez ziren ikusten”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Zu ez zinen batzordeta etortzen naiz eta aukera izan.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Ongi informatu, begiratu aktetan mahai honetan bertan non egoten nintzen. Gezurrak ez esan. Nork esaten dizu ni ez nintzela batzordeta joaten? Joaten ez zena da zure zinegotzia Silvia. Harek utzi eta Zubillagak baita ere”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gauza da etorri edo ez etorri. Uste dut moduak eta moduak daudela gauzak azaltzeko.

Eider Garmendia zinegotzi andreak erantzuten du:

“Zuk dena esteko eskubidea duzuean gainera Fidel!”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bi aldiz esan diozu, zuk ez duzu ezer esaterik. Hau zu bezala zinegotzia da”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Agian ez da forma, esan nahi nuena da, batzordeta etorri gabeko jende asko izan dela”.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Nik esan dizut informatzeko ea batzordetara joaten nintzen”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“135 dekretuari buruz. Aurreko gauza bera errepikatuko genuke, kontutan izateko”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gauza hauei batzutan bapateko erantzuna eskatzen dute eta berriz ere ziur aski erabakiren bat hartu beharko da. Horrelako gauza bat dagoen bakoitzean ez dut jendea elkartuko. Batzordeak egiten ditugunean harturiko erabakiren berri emango da. Asunto batzuk izaten dira ia ia egun batetik bestera eta besteak ez”.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN FINANTZIAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA, HASIERAKO ONARPENA.

Alkate jaunak adierazten du:

“Ordenantzak egin genituenean, etxez etxeko zerbitzuan ematen zaien orduen ordainketan, aplikatu zitzaizen %4ko KPIa eta orain % 4,2koa izan da; beraz, horrek eskatzen duen ajustea izango litzateke, zentimoen kontua da. Bakar bakarrik horretarako da”.

2007ko azaroaren 14ko plenoko akordioa ikusi ondoren, non, besteak beste, “Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzaketa arautzen duen Ordenantza” behin behineko eraz onesten zen.

Udal Gizarte Laguntzailearen ondorengo proposamena ikusi ondoren:

Visto el acuerdo de pleno de fecha 14 de noviembre de 2007, por el que se aprueba provisionalmente, entre otros, la “Ordenanza Reguladora de la Financiación del Servicio del Plan de Ayuda a Domicilio”.

Vista la propuesta de la Asistente Social municipal que dice como sigue:

“GAIA.- 2008. urterako EULEN enpresak ezarri duen ordu prezioa.- 2007ko azaroaren 14ean Udalbatzak 2008. urteari zegokion etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ordu prezioa ezarri zuen, 17,25 € orduko (ordu arruntak) hain zuzen ere. Ordu hori gizarte zerbitzuetatik bideratu zen proposamena”.

media ezarri zen.- 2008. urtea ordea jakin dugu, KPIaren igoera, eta hau uste baino altuagoa izan da (%4,2).- Kontuan izanda Eulen enpresarekin kontratua sinatu zenean, urteroko igoerak KPIaren arabekoak izango zirela onartu zela, proposatzen da, azaroak 14ko udalbatzak onartutako kopurua aldatzea: Ordu arruntak: 17,25tik 17,28 €ra eta Jaiegunak: 20,70tik 20,88€ra”.

Udaleko AOTa den M^a Jose Sánchez Plazak eginiko txostena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez ondorengoa erabakitzen dute:

Lehena.- Etxez Exeko Laguntza Zerbitzuaren Finantzaketa Arautzen duen Ordenantzari buruz, 2007ko azaroaren 14ean harturiko erabakia modifikatzea ondorengo eran:

ESATEN DUEN LEKUAN:

Ordu arrunta: 17,25 €

Jaiegunetan: 20,70€

ESAN BEHAR DU:

Ordu arrunta: 17,28 €

Jaiegunetan: 20,88 €

Bigarren.- Aurreko atalean aiptzen den erabakia 30 lanegunetako epez jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez aitezkeen erreklamazio edo oharpenetarako.

Hirugarren.- Jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, lehengo atalean onarturiko erabakiak behin betiko izaera hartuko dute, onespren berri baten beharrik izan gabe.

Visto el informe emitido por el TAG, Dña. M^a Jose Sánchez Plaza.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Modificar el acuerdo adoptado con fecha 14 de noviembre de 2007, en relación a la Ordenanza Reguladora de la Financiación del Servicio del Plan de Ayuda a Domicilio, en los siguientes términos:

DONDE DICE:

Hora Laboral: 17,25 €

Hora Festiva: 20,70 €

DEBE DECIR:

Hora Laboral: 17,28 €

Hora Festiva: 20,88 €

Segundo.- Someter a información pública por el plazo de 30 días hábiles, el acuerdo que hace referencia el extremo anterior, a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

Tercero.- El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo reglamentario de exposición pública no se hubiese producido reclamación ni observación alguna.

3.- GALDE – ERREGUAK

Alkate jaunak galdetzen du ea zerbait esatekorik ba dagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

*“Nik baditut zenbait galdera. **1. Batzordeetako aktak.** Akta hauek egitea Anoetako udalean asko kostatzen da, adibidez oraindik urtarrilaren 30ekoa egin gabe dago. Nik, ulertzen dut, barruko funtzionamendua ezagututa beti dago lan pilaketa, egia da, gaur egun aurrekaldean dugun tresneria hau, Foru Aldundiaren bidez lorturiko dirulaguntza batekin jarritakoa, fidagarritasuna ematen du grabatzeko. Grabazio horiek gero transkribitu egiten dira gero zuzendu etab. Horrek luze jotzen du. Gainera transkripzioak hitzez hitz egiten direnez, horrek zaildu egiten du. Konziente naiz batzutan hemen egiten ditugun komentarioak, nere esaldi desegokiaz, Gorka sartu den bezala, gaiari erantsi gutxi ematen dio. Hau ikusita, ditugun baliabideak kontutan hartuz proposatuko nuke aktak ere resumitugoa egitea horrela bulegoan karga arinduz, sustantzia emango ez dion komentarioak kenduz. Edozein garaitan sortuko balitz eztabida denbora legoke grabaketari eskua sartzeko baina printzipioz nik ez dut ikusten beharra hitzez hitz hartzekoa, lan asko suposatzen bait du. Horretaz aparte, aktetan azaltzen da gure arteko eztabaidak nolabait reflejatzeko Perikok esan du, Fidelek esan du etab. Nik prozedura aldatuko nuke abrebiaturak jarriaz, adb. ANVko G.Ok esan du, horrelako zerbait, paperean eta denboran aurreztuko genuke. Helburu honekin proposatuko nuke aktak murriztea eta ez hitzez hitz egitea”.*

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ikusiko dugu eta hitzegingo dugu. Niri alde batetik beldur pixka bat ematen dit, bereziki zu ezagututa, edozein txikismikisekin hasten zara eta. Agian ebitatu nahi genuen diskusioa areagotu egingo dugu. Eskatzen bada modu resumitun b atean egitea hala egin behar da eta gure aldetik hartu beharko genuke konpromezu zehatza, “nik hau nahi dut agertzea” eta punto eta gero ez ibili “nik hura ere esan nuen” etab. Akta batekin izan dezakegu hemen Aste Santuko kalbarioetako errosarioa baino luzeago. Horrela egiten bada, arrazoi bat badagoelako da, lehendik datorren zerbait da. Akta jasotzen dutenekin hitzegingo dugu errexago suertatuko zaien bidea bilatzeko. Dena den, aktan abrebiaturak jarri ditzazkegula eta ANV ezin dugu erabili”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

*“**AHT buruzko emaitzak.** Abenduaren 11ean egin zen Ingurumen batzorde batean tratatu zen gaia. Komentatu ziren proportzioetan eta ze boto kopuru lortu zuten bi aukerak, aurkakoak eta aldekoak. Hori aktan ez da azaltzen. Hurrengo bileran galdetu nuen zergaitia eta orain berriro, zergaitik ez dira zenbakiak azaltzen?”.*

Gregorio Zuaznabar Urkola zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Akta hori aldatzea eskatu zenuen baina baita ere komentatu genuen datu berdinak zirela, neretzako inportantzi gabeko gauza da”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Beste kasutan, horrelako aldaketak egiten direnean, esaten da zergaitia, arrazoa badago jartzen da eta hemen jartzen du, zenbakiak jartzea, ez bakarrik portzentaia. Arazoa badago zenbakiak jartzeko?”

Gregorio Zuaznabar Urkola zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Ez, azkenean dira datu berdina bi eratara”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Aurreko puntuari dagokionez, egin duzun komentarioaz pentsatzen ari nintzen eta agian zintzilik gelditu zaigu. Zuk aipatzen zenuen konpromizo hori aktatan adostu beharko genuela, zer jarri eta zer ez, guztiz ados gaude. Landu egin beharko dugu zer nola jarri. Zure eskutan uzten dizut nahi duzunean hitz egiteko”.

Eider Garmendia Galárraga zinegotzi andreak zera adierazten du:

“Nik pertsonalki ikusita, zuk duzun jarrera ikusita, dena jartzekoaren aldekoa naiz. Erabaki bat hartuko dugu baina gero hau ez dela agertzen, agertzen dela, iruditzen zait dena agertzea, horrela ez dugu inongo dudarik”.

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Batzar Nagusietan ere bi erata egiten dira, alde batetik “Diario de Sesiones”, hau hitzez hitz grabazen da baina erabakiak ez. Grabatuta geratzen delako eta arazorik balego han dago. Pixka bat lana kentzeko. Perikok dioen bezala, again konpondu beharrean okertu egiten dugu sistema”.

Idazkari andreak adierazten du aktak erredaktatzea bere erresponsabilitatea dela eta bi aukera ikusten dituela. Bata, interbentziorik ez hartu, hau da, akordioa bakarrik eta bigarrena, alkateak lehen esanda bezala, interbentziotan bakoitzak esan dezala zer hartu behar den.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Lehen aipatu dudana horregatik aipatu dut, erresponsabilitatea berea delako eta hitzegingo dugu akta jasotzen dutenekin. Guk, argi adierazi beharko genuke, hau bai eta hau ez”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Batzorde informatiboei buruz. *Legealdi honen hasieran hainbat batzorde osatu ziren, horietako bat, lehen aipatu bezala Kirola, Gazteria, Emakumea, Agenda 21 etab. Denok dakigu udalarekiko dugun dedikazioa eta aparte beste hainbat behar sortzen direnak zuk alkate bezala eta gainontzekoak zinegotzi bezala. Zentzu horretan hainbat gauza planteatzen direnean, hau da, kirolaren dinamikari dagokionez, kultura batzordetik pasatzen da berdin esango nuke kiroldegiaren funtzionamenduaren inguruan hirigintzatik. Gazteriaren gaian ere, osatu zen batzorde hori eta eguneroko dinamikak ere askotarako ematen ez duenez, egin dira dantza-soka, bertso-antzerkia nolabait kulturatik zuzenduta eta horrela jarrai daiteke. Emakumearen gaia ere berdin, izan zan zen azaroan generoaren eguna eta kultura eta ongiztatetik tratatu zen eta agian beste bileraren bat edo egin da”.*

Eider Garmendia Galárraga zinegotzi andreak zera adierazten du:

“Elkartu gara hori antolatzeko eta martxoaren 8rako ere. Kultura eta gizarte zerbitzuetatik joan da, emakume talde bat ere elkartu da, hitz egin da”.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Kultura Batzordetik bideratu da, otsailaren bukaeratik martxoaren 9^a are Aste Kulturala izan dugu, tarte horretan “Emakumeen naziaorteko eguna” suertatu da eta elkarlanean egin dugu. Beraiek batzordeak egin dituzte, proposamenak etab”.

Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Batzorde horiek again egni dira baina osatzen dutenei ez zaie konbokatu. Era informalean egingo ziren, ez dut dudan jartzen, nolabait ohiko batzordearen trataera ez zaio eman eta berdin Agenda 21aren inguruan. Ingurugiro batzordean tratatzen da, izen asko esaten da baina denbora murrizta da eta nolabait batu egingo nituzke aipaturikoak. Berdin beste batzordeekin, ez dakit bilerak egin diren ala ez baina “bai Euskal-Herriari” ekimenari, esan zen noizbehinkakoa izango zela eta again ez da suertatu gairik hori eztabaidatzeko”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nik uste dut, begi bistakoa zen hasiera batetik Ingurumena eta Agenda 21 elkarrekin joatea eta gainera pertsona berberak gaude. Hor tratatzen dira batzuk zein beste. Dinamika horrek horrela jarraituko du, besteak beste, hori aholkatu dezakeen pertsona era bakarra delako. Bestetik, kirola eta gazteria buru dena, momentu honetan ez dago hemen. Pertsonalki, arduradunei autonomia ematea gustatzen zait. Beraiek ezin badute, nolabait moldatu beharko dugu baina ardura hartu duenak erantzun deza autonomia hori pixka bat errespetatuz”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Egia da, Agenda 21eko gauzak Ingurugiroan tratatzen dira baina kideak ezberdinak dira. Ingurumenean Joseba, Gregorio eta ni gaude eta Agenda 21ean, zu, Joseba, Fidel eta lauok. Tratatu behar bada ingurumenean ez dago problemarik baina pixka bat geratu gara harrizta hainbeste batzorde izan eta batzuk ez dira egin. Beharrezkoak dira edo ez dira? Hori da galdera. Horrek ez du esan nahi ez direla egiten, ez direla gaiak prestatzen.

*Beste gai bat, **Orbinox**, saiatuko naiz labur izaten. Pixka bat situatzeko, orain del denbora bat hitzarmen bat firmatu zenuten Orbinoxekin, ez dakit Orbinox, Elizelai edo Lucas; firmalki Orbinox. Firmatu ez, adostu gero hauteskundeak izan ziren eta azkenean hitzarmena berdina izan zen. Horrekin hasi ziren mugimendu guztiak urbanizatzen, eraikitzen pabiloi berriak eta. Egia da, guregana iritis zen alde batetik hitzarmena esan bezala eta gero dokumentazioa barra-barra. Ikusiko zenuten hor dagoen dokumentu pila urbanizazioa, exekuzioa, estudio detalle, reparzelazioa. Egun batean dokumentu bat hurrengoan aldaketa, desagertu egiten zen biala, berriro hurrengoan eskatzen genuen eta berriro sartzen zen, hor dago kriston nahasketa. Azken finean, pausoz-pauso, bete behar zirenak bete dira eta urbanizazio proiektua baldintzatua izan zen, dekretuz onartua, nahiz eta mila aldiz eskatu atzeko eta aurreko bialak mantendu behar zirela Arauetan horrela eskatzen zelako. Inportantea zela aurreko bial hori mantentzea eta baldintzatuta egin genuen urbanizazio proiektua. Horren kontra errekurso bat sartu zuten eta beste bigarren bat udalaren kontra. Errekurso bat beraiek bertan behera utzi zuten eta bigarrena galdu. Egoera horrela zegoen udala utzi genuenean. Bestalde, enpresak hor daude. Egia da ez genuela ezer egin enpresen kontra; proiektua ona iruditu zaigulako beti bai enpresentzat eta baita ere herriarentzako. Horregatik mantendu egin dira enpresa berri horiek egoera probisional batean. Azkenean oso luze dijoa eta. Ura ere probisionalki eman zen, ideia berberarekin. Momentu honetan, legez, itxi egin beharko ziren baina hau ez da ez gure eta zuen asmoa. Baino egia da, mugimendu batzuk izan direla. Hor ikusi dugu alde batetik errekursoa galdu egin dute baina hala ere ez dute betetzen bere garaian esandako gauzak.*

Ikusi dugu eskatu dutela “proyecto derribo Gure-Ametsa” baina ez dute aurkeztu proiekturik hango depositua botatzeko. Baita ere eskatu dute “licencia edificación naves Orbinox”. Pentsatzen dut edifizio berriak izango direla baina hori egiteko lehenbizi urbanizazio eta repartzelazioarekin bukatu behar da, bere momentuan ez zen bukatu gauzak ongi ekartzen ez zituztelako. Hori ezin da tratatu ere egin aurreko proiektu horiek erabaki eta finkatu bitarte. Baita ere eskatu dute “Proyecto legalización aparcamientos subterráneos”. Hori Arauen kontra dioa. Denok dakigu hori momentu honetan ezin dela egin. Bere garaian utzi zitzaizen esanez ideia ona zela baina Arauak aldatu egin behar zirela hori egin ahal izateko. Eskatu zuten subterraneo eta egin dute erdizka. Aldi batetik ez da subterraneo; hori ere problema bat da. Hori dena ikusita, beste Batzar batean eskatu genuen, zuk komentatu zenuen bazegoela bide bat konpontzeko”. Konforme, gure aldetik ez dago arazorik. Bilera bat ere egingo zela, ezer ez dakigu, egin zen, pentsatzen dugu baietz bestela ez zituzten proiektuak aurkeztuko baina ez dakigu zer dagoen eta zein den konponbide hori; posible bada edukitzea gustatuko litzaiguke. Detaletxo bat ahaztu zait, hasieratik Diputazioak esan zuen Orbinoxek bi sarrera zituela eta bat itxi egin behar zela. Eskatu zaio ezdakit zenbat aldiz eta ez dute ixten. Borondate ona ez dut ikusten. Nere galdera da zerbait egin behar da? Zer? Nola? Denon artean egingo dugu?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Egia da hor eskatu dituztela hainbat lizentzi, ekarri dituzte proiektuak. Repartzelaziokoa urtarrilean edo otsailean bukatuko zutela esan ziguten. Nik dakidanez ez dute ekarri. Hori ezinbestekoa da “reparzelazio proiektua” hainbat gauza aurrera egiteko, beraiek badakite. Ez nago ados esan duzunean, ongi ulertu ezbadut, beraien aldetik ez dagoela borondate ona. Borondate osoarekin ari dira hau konpondu nahian. Beste arazotxo bat ere sortu zaie, tartean, Elias hil zen eta familiarekin beste reboteren bat badute. Repartzelazio proiektu hori eta beste zenbait ikusi arte guk ez dugu baimenik emango. Emango zaizkie baimenak gauzak betetzen dijoazten heinean. Aparkamentua egin daitekeen ala ez arauen arabera, ez dakit hain garbi dagoen. Dena den, guk obrara bixita bat egin genuen arkitekturekin eta bial hori egiteko lekua geratzen da. Atzetik egin beharreko biala ez da bakarrik beraiena oso luzea da. Garai batean Venta-aldearekin gertatu zen bezala. Aurreko biala egin ahal izateko, noiz edo noiz atzekoa egitea exigitzen zaigunean, “zuen kargu joango da” horrelako zerbait sartu beharko genuke. Ni uste dut, hil honetan, Orbinoxekin bilera bat izango da. Bihar, inolako abisurik ez badute ematen, nik neuk, deituko diet. Lehengoan Fideli esan nion, Hirigintza Batzordera deituko zaizue, egingo dugu bilera hori eta deituko zaizue. Asuntoa korapilotsua da, bi egunetan egin ezin litekena”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

*“Hirigintzarekin jarraituz, **B.O.E buruz**, bukatu dira? Urte bete daramagu zai, egun batetik bestera emango zaizkie. Batzordean geratu ginen joan behar genuela jardinak nola geratu ziren ikustera, suposatzen dut, azken fasean gaudela. Kalea ere konponduta dago eta gutxienez etxeeta sartzeko errreztasuna duzue, zuk eta beste biztanle askok. Zerbait dakigu horri buruz, noiz bukatuko dira?”*

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nik dakidan azkena da arkitektoak aurkeztu duena “Fin de obra”ko dokumentua eta neri esan zitzaidana da espero zuela “fin de obra” hori aste honetan sinatzea. Behin sinatu ondoren Eusko Jaurlaritzak inspektzioa pasatzea etorri behar du eta hortik aurrera hasiko dira eskuraturazten”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Obra, materiala bezala bukatua dago, bakarrik falta da tramite administratiboa nolabait bukatzeko”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Behintzat inspeksiona arazorik sortzen ez bada”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Gero hiru gauza ailegatu dira, **“plazo presentación alegaciones al plan territorial de Ordenación de márgenes de ríos y arroyos”**, beste bat **“Barne zibila eta larrialdia kudezteari prestakuntza plana”** eta beste bat **“Estudio valoración conjunta en PTS de la red de transporte”**. Hauek batzordetik ez dira pasa, nola daude?”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Lehenengo ostiralean pasa zen hori batzordetik. Guk benetan, PTS horrek zer asmoa duen ez dakigu baina ikusi genuena zen Erausitik hasi eta Sacem bitarteko terreno guztiak reserbatzen dituzte auskalo zertarako. Zerbait batzuz ikusten dira, agian urteak izan daiteke, 2015, 2026 eta 20Ha. Horren inguruan, Rai eta Oscar begiratzeko hasi ziren zer izan zitekeen; besteak beste, PTS horrek ere hilabeteko epea du zerbait esateko. Ez dakitena da, kasu honetan Gregorio afektatua delako, beraiek zenbat denbora duten edo baduten ere. Gainera ebaluazio horretan egin litekena da, ez dut uste alegazioa denik baizik eta beste zerbait”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“PTSaren dokumentazioa potoloa denez, ikusteko aukera izango dugu?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“PTS duzue ingurumenean. Guri orri bakarra iritis zitzaigun. WWW.ingurumena.net, uste dut dela orria. Hor “plan de evaluación” inguruan komarkalki dago, Oria ibaiaren ingurukoa. Hor agertzen da “Plan sectorial”. Nik ikusi dudana hau izan zen eta ez nuen ulertu zer izan zitekeen eta Rairi pasa nion eta hasi ginen begiratzeko. Ikusten dena da plano handi batean Anoeta-Villabona. Erausin hasi eta Sacem bitarte eta guk ulertu/interpretatu genuen “dentro de transportes o mercancías” barruan, hor azalera guztia 35 Ha da. Aurrena egiten da “reserva de suelo” eta lehen gutxi bagenu, urdinez dagoen trazado batekin AHTkoa da. Orain merkantziatarako edo ez dakit zertarako hori dena hartzen dute. Ez gaitu guri bakarrik afektatzen, Villabonako arauak ere afektatuak geratzen dira. Adunako esparruan berriaz, harrapatzen du araztegia dijoan leku hori, Nissan inguruko industrigune hori. Gehiago aztertzen ari gara”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Eta “plan territorial” horri buruz, epea bukatu da edo ez?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez dakit nola dagoen, begiratuko dut”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Eskertuko nizuke, horrelako gai potoloak, posible bada, guri pasatzea abisua, sarreran kopia, herriarentzat importante diren gauzak”.

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzi jaunak zera adierazten du:

*“**Gai ekonomikoei lotuta** Azken sarrera/irteeratan ikusi dugu zenbait enpresak edo hornitzaileak ordainketa ezaren reklamazioak. Ez dakit nolabait lehen jarrita zeuden hor epe batzuk ordainketarako. Kontrol bat nahiko zehatza, orain harridura sortu zait, enpresa hauek erreklamazio hori egina. Izango da traspapelatu delako baina informtikoki kontrolatuta behar luke sistema hori. Data batzuk finkatu ziren, hilean 5 eta 22 ordainketak egiteko. Bestalde ikusi dut sarreratan 2007 Fondu Foraletik etorritako likidazioak 2 kopuru agertzen dira, ez ditut ulertzen”.*

Alkate jaunak erantzuten du:

“2007 likidazioa egin zenean, gure alde atera da eta ordaindu dizkigute gutxi gora behera 102.000 euro. Gure sarrerak izan dira likidazio eta 1. hiruhilabetekoa. Bestetik, ordainketen kasuan, erreklamazioak ez dakit zeintzu diren, buruz dakit “Sobrino”rena. Honek bazituen gauza batzuk kobratzeko baina berak ere pagatzeko. Ibili gara pagatu arazten gero guk ordaintzeko. Bestetik, urte azkena iritsi zenean, diruz edo likidez nahiko juxtu genbiltzan eta zai egon gara zenbait gauza ordaintzeko”.

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzi jaunak zera adierazten du:

*“**Anoetako baserrien liburuari buruz** lortu zen dirulaguntza guztia ordaindu dutela ikusi genuen. Bueno diru hori aurrekontuetarako ongi etorriko da, pentsatu duzue zerbait berezia egiteko? . Gero **2006 urteko likidazioa** egiteko geratu zitzaigun guri, denbora dela eta, momentu honetan nola dago? **2008 urteko aurrekontuaren** inguruan, ezer berri badago? Nola dago?”*

Alkate jaunak erantzuten du:

“Likidazioa bukatzeaz, azken ikutuak ematea. Ibili dira ajustek egiten baina ixtea dago. Ogasunera emango da. 2008 aurrekontuak berriz, prestatzen ari gara, proposamenik badituzue onartuko ditugu.”

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Hori eskatu nahi genuke, proposamenak egiteko 1. kapitulua da inportantena gastuetan, zenbaki potoioenak jakitea zenbat geratzen den ikusteko. Erreala izateko”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“1. eta 2. kapituluak normalean aplikatu behar zaizkie IPC. 1. kapituluan aurtun Jose M^a eta M^a Dolores inkorporazioarekin igo egin da. Lehengo urteko zenbakiak, abiapuntu bezala hor daude”.

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Datu horiek baditugu, pixka bat lantzeko. Egia da da milagro handirik ezin dira egin, aurrekontutan gastuak ekiditu eta sarrerak handitu.”

***Anoeta Lantzen proiektuaren inguruan**, ikusi dugu Lasarberri zuzentzen zaiona dokumentazioa eta sgiiluak eskatuz. Azaroan egin genuen bileran Kontseilua osatu zen eta geroztiz ez du funtzionamendurik izan. Egin den eskaera udaleko irteera darama ; Anoeta Lantzen entitate anonimoa denez, funtzionamendua guztiz ezberdina da udalarekiko. Agian forma aldetik irteera hori Anoeta Lantzenetik egin beharko litzateke. Bestalde, Kontseilua osatu zen baino karguak ez dira egin edo ya ez da*

ofizializatu. Bilera bat egin genuen, informala, eta hor geratu zen. Jakin nahi genuke zer pauso eman diren edo emango diren”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Esarbekoak hemen izan ziren eta gogoratzen baduzu kontseilariak izendatu genituenean formalizatu nahi genuela eta, esan zitzaien zein egoera ekonomikoan geunden eta ze mugimendu izan ziren jakin nahi genuela. Beraiekin hitzeginda, ekarriko zutela esan zitzaigun. Guk jakin nahi genuen 2006/07 urteko mugimenduak, nola izan diren, ze enkargu izan diren etb; guk ezagutzarik ez genuelako eta bera geratu zen bidaltzeko. Aste honetan iritsi da eta pixka bat ikusiko dugu nola dagoen eta pasako zaizkizue. Egin beharreko kontseilu izendatzeka eta gainontzekoak berehala egingo ditugu. Ez dugu egin zai egon garelako, ez genuen ezagutzen, dokumentazioa erreklamatzeko aritu garelako”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“**Lasarbe proiektuari buruz** bidali zen Eusko Jaurlaritzara eta etorri ere egin zen koma bat mugitu gabe. Beste bilera batean esan zenuten lantzen ari zinetela, nola dago? Denbora pasatzen ari da. Hitzarmena ere bertan behera geratu zen, firmatu gabe”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Dena den, presak harritzen nau. Lasarbe gauzatzeko lehen ere lau urte pasa dira eta oraindik urtebete ez da pasa. Bestalde, inplikaturik dauden talde guztiekin hitz egin dugu eta talde hauek aurreko korporazioak eginiko zenbait gauzarekin desadostasuna adierazi dute, hauek, arkitektoak jaso ditu eta aztertzen ari gara. Azken etorri zena da “Grupo Eibar”. Hura geratu zen etxe kopuruaren inguruan Jaurlaritzan kontsulta bat egin behar zuela eta erantzungo zigula. Komenioa errebixatu eta buelta bat eman ondoren berridazten ari dira momentu honetan. Gero, berriz ere propietarioekin bildu eta egingo dugu bilera eta gauzak eskura ditugunean esango zaizue. Pilar Amenabarrek ere egon ginen, hor plan partzialaren aldaketa batzuk proposatzen genituen eta Amenabarrek begi onez ikusi zituen. Fitxa batzuk egingo ditu aldaketei buruz. Berak eginiko plan partzial hortan aldatu eta gauzatzen direnean eta komenio hori pixka bat gorpuzten denean, Teodoro Cacho ari da prestatzen, ekarriko dira”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Nola dijoazte aldaketak?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Etxe kopuruari dagokionez ez daude asko, ezin dute asko izan. Duda sortu da bai “Grupo Eibar”koekin eta beste zenbaitekin, asko azpimarratu dute ea etxe kopuru hori aldatu egin litekeen. Egin beharreko etxeak izan beharrean 100 libre, 100 izan beharrean gehiago izango zirela 2 gelakoak, demanda aldatu egin dela ez dela, esan bezala “Grupo Eibar” geratu zen kontsulta hori Jaurlaritzan egitekotan, oraingoz aldaketarik ez dago. Beraiek pixka bat tanteatzen ari dira”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“**Herri Irakaskuntza mankomunitateari buruz**, azken bilera egin genuen, bertan hartu zen erabakia gauzatzen ari da, hor fleko batzuk geratzen dira. Bata da Jose Mariren egoera. Gaur egun, ez dakit lanean ari da ikastolarekin, gurekin ere udaletxean, kiroldegian, erdia eta erdia. Nork ordaintzen dio?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Momentu honetan, udalak ordaintzen dio. Ikastolako komenio hori oraindik ez dugulako”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Jose M^a udaleko langilea da eta guk ordaintzen diogu . Berak lan egiten du kiroldegi eta ikastolan. Zenbakiak egin beharko dira pentsatzen dut. Ikastolarekin hitzarmena?, orokorrean, nahiko landua geratu zen bere momentuan”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez du horrelakoa esaten zuzendariak”.

Eider Garmendia Arrieta zinegotzi andreak zera adierazten du:

“Zuen ikuspegia da ezta?”

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Ez nirea bakarrik. Bilera batean baino gehiagotan etorri zen partaidekoa eta ez zuen problemik ikusten horrelako hitzarmen bat sinatzeko. Ikastolatik, orokorrean, ez dago problema handirik, agian pertsona batek bai”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nik zuzendariarekin hitzegiten dut maiz eta esaten dit joan eta etorri, etorri eta joan zirriborroak eta ez dela ezer konkretatu. Zenbait kasutan bilera bat egin eta bestea egiterako urte eta ipiko pasa zela. Beraien proposamena, zuena, hori dena jaso egin beharko da.Orain egoera aldatu egin da, mankomunitatea desegin da. Beraiekin hitzarmen bat egin behar baldin bada, nondik norakoak, ze baldintzetan eta nola ikusi beharko da”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Bitartean, Jose M^a gure kargu dago eta udalak ordaintzen dio. Hitzarmenarekin beste modu batera egingo zen. Guk pentsatzen genuen dena batera egin behar zela, badirudi azkenean puzzlea ez dela osatu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Baina osatuko dela uste dut. Mankomunitatearekin genuen egoera ez zen batere ona eta lehen esan dugun bezala diru aldetik gauden bezala bagaude. Mankomunitateak zeuzkan zenbaki gorriak, lotsatzeko modukoak ere baziren, bazeuden faktura batzuk joan den urtarrilatik ordaindu gabe. Egunero udaltxera deitzen zuten Amaiarekin hitz egiteko, berak ematen duelako ardura hori, eta koloreak gorritzeaz eta gaizki pasatzeaz aparte ez genuen ezer egiten. Erabaki hau pixka bat azkartzearen zergaitia ere hori izan da, ez gaude dirua galtzeko”.

Jose Ignacio Otermin Garmemdia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Erabaki zenean mankomunitatea desegitea, orduan, de repente, azaldu ziren faktura pila, lehen ez zudenak”.

Eider Garmendia Arrieta zinegotzi andreak zera adierazten du:

“Guk sartu ginenean, Amaiak segituan ekarri zizkigun paperak, ezta Ainitze?. Amaiarekin elkartu ginen eta ailegatu bezain pronto genituen kriston zenbaki gorri”.

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Ordaintzen ari ziren beti bezala, gutxi gora behera atzerapenekin. Horrela funtzionatu du edo ez du funtzionatu”.

Eider Garmendia Arrieta zinegotzi andreak zera adierazten du:

“Ordurarte, ez zenekiten zenbateko gastua zegoen, ezer ez?”

Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Desegin aurretik gastu batzu zeuden, zenbaki batzuk eta de repente bukatu behar dugu eta ez dakit Mikelek ez dakit non gordeta zituen baina azaldu ziren faktura pila bat, noski zeuzkala Amaiak, ez diot berari ezer esaten. Kontuak egiten zirenean edo interbentoreak esaten zuenean kontuak nola zeuden horiek ez ziren agertzen”.

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Bere garaian eta oraindik ere sinatu gabe bi hitzarmen dira. Bata 2 urteko gelarena, hor epe batzuk jarrita zeuden. Hau sartu da?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Dena batera egingo dugu”.

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzi jaunak zera adierazten du:

*“Bukatzeke, **kiroldegiko kudeaketa inguruan**, aurreko plenoan edo, dekretu batean azaltzen zen 6 hilabeteko kontratua luzatzen zitzaiola Onintzari. Urtebete atzera jota, egin zitzaion urtebeteko luzapena batipat kiroldegia ibilbidea hain motza izanik ez zegoen kontrol ekonomiko bat datuak finkatzeko. Orduan urtebeteko epe hori kontsideratu zen datu horiek ateratzeko, kudeaketaren kostua non zegoen jakiteko. Honen ostean, gure planteamentua zen plaza hori konkurtsora ateratzea. Orain 6 hilabete luzatu zaio, ez dakit ze asmo edo nola aurrirakusten den kiroldegiko kudeaketa”.*

Alkate jaunak erantzuten du:

“Sei hilabete luzatu zaizkio, besteak beste, planteatzen diren ikastaroak iraupen berdintsua duetelako. Urrian hasten dira eta ekainean bukatu. Bestalde, 2007 urte osoa hartu da ze gastu eta sarrera izango diren ikusteko. Datu horiek bildu ditugu eta Jose Luis Urdaingarín, Tolosaldea Garatzenekoarekin harremanetan jarri gara egin dezan proposamen bat hori gestionatzeko. Betiko biabilitate plan bat egin.”

Gure asmoa, horrek duen berezitasunarengatik monitoreak kontratatzeke eta horrek ematen duen lana kontutan izanik, zenbait gauza beste era batera gestionatzea da. Udalari lan gutxiago suposatuko diona. Egin da ze sarrera/gastu izan diren. Iruditzen zitzaigun naturalagoa zela urte osoa urtarriletik-abendua bitarte eta horren arabera osatuta ditugunean emango zaizkio Jose Luisi azter ditzan”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko bederatziak eta hogeitabost direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.

Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las veintiun horas veinticinco minutos, lo que yo, la Secretario certifico.